

Aitonita eta ortologia



JOSE IGNAZIO
ANSORENA
TXISTULARIA

Ansorena'tar Joseba Eneko.

Edonori *orto* zer den galdetuz gero, goizalde erantzungo, D'Artagnanen mosketero laguna edo ipurtzuloa, agian. Baina *orto*- aurrizkiak *zuzen* adierazten du eta maiz erabiltzen dugu: ortodoxia, ortopedia, ortodontzia... Orduan (datorrena garrasika irakurri behar da), ze arraiorengatik ez da ortologia zaintzen? Ortografiari egun ez zaio garrantzi handirik ematen, baina ortologia dagoenik ez zaigu bururatu ere egiten. Ez da dudarik, Ortologia komandoa eratu beharra dago euskal hedabideetan eta eskoletan, hasteko, ekintzak egin ditzan.

(Berriro tonu lasaia) Euskaltzaindiak ahoskera zainduan *yeismoa* saihesteko aholkua emana du: *milla* eta ez *miya*, alegia. *Mixa* aipatu ere ez, horiek euskal argentinarrak dira eta. Baina nork kasurik egin Euskaltzaindiari? Trafikoan agindutako abiadura gainditzen duenari isuna jartzen zaio. Honetan ere, adimen artifiziala horretara jarritz gero, *mailaren* ordeztu *maya* dioenak jaso litzake WhatsAppenak bezalako dei zaratatxoak, bigarrenen besapean elektrikara eta hirugarrenean isuna. Hiztunak jendarte mailan (ez *mayan*) zein kokapen duen eta zenbat aldiz errepikatzen, hainbat eta handiagoa. Dirutza bil liteke, eta irakasle jendeari, adibidea besterik ez da, kenduko litzaioke hainbeste greba egiteko gogo. Zer uste dute?

Badakit, euskaraz gainera, beste hizkuntzetan ere gertatzen ari dela *yeismo*-ratze hori: galizieraz, portugesez, frantsesez, katalanez, italieraz... eta magyarreraz ere bai. Eskerrak Hungarian Orban duten agintean eta ordena jarriko duen berehalako batean. Espainian oraindik sinetsita daude euskaldunok berezi egiten ditugula y eta ll. Errealitate triste honetaz konturatzeko badira, barregarri geratuko gara. Eta behar-beharrezkoa dugun estatua eta estatua lortzeko ez da postura egokia. Barre eragitea morroi izateko ongi dago, baina munduan agintari ibiltzeko, beldurra sentiarazi behar da. Hori argitzea falta izan zaio Joseba Zulaikari *Aberriaren inpaseak* horren ongi aztertzean.

Behin komandoa sortuta, bestelakoak ere zigortzen abia gintezke. Morfosintaxian: aitonari *aitonita* edo musua eskatzeko *musito* esaten dutenei, kanka kope-tan. *Hori egin duenaren errezeloa daukat* botatzen ausartzen denari, eskuin oineko kailua zantatu. Eta semantikan ere bada lanik: *Labrit pilotalekua garrantzitsuenen artean dago* jaurtitzen duen lotsagabeari, atximurra titi-puntan. Iritsiko dira beste zehapenen zehazpenak.

Eta lexikoa ez ahaztu. Hasi hiztegi jatorria *berreskuratzen*: berebila, urrutizkiña, izparringia, txadona, irarkola eta axota. Oraingoz. Hurrengoan aitonita ergatiboaz jardungo da. Tabixo. ●

Irauteko



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Beldur hori bada. Badirudi Donald Trump etorri dela Washingtoneko bulego borobila luzerako okupatzera. Bigarren mandatua du, baina bere hurbileko aholkulariei, ez dela txantxetan ari berretsiz gainera, Konstituzioan zenbaki bakan batzuk aldatzeko bere xede zurruna aipatzen die, hiru edota lau alditan presidente izateko. Bistan dena, ez dela egoistaki ari, MAGA eta DOGE itsuki sustengatzen dituzten bere bozkatzailen nahiaren arabera baizik. Hurrengo lehia Barack Obamaren kontra itxuratzen omen du...

Lan egitea gustatzen zaiola errepikatzen du ainitzetan, bereziki lan egi-

tea bere lagun aferagileak aberasteko. Erran gabe doa. Konstituzioa kanbiatu gabe, presidente honen segida eramaten ahal luke, adibidez, JD Vance lehendakariordeak. Iragan urtarrian, Andy Oges izeneko Tennessee diputatu errepublikanoak emendakin bat pausatu du zentzu horretan! Konstituzioa aldatzea zailagoa liteke, ez ezinezkoa, haatik: senatuaren eta batzarraren bi herenak eta AEB mailako estatu-gobernuen hiru laurdenak aski lituzkete...

Munduko buruzagi guziek Putinen amets bera dute, boterea hartu eta atxiki, gogor, partekatu gabe. ●